



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Docentiaz

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzua
Servicio de Evaluación Docente

DOCENTIAZ

IRAKASLEEN IRAKASKUNTZA JARDUERAREN EBALUAZIO PROGRAMA

**Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate
Batzordearen funtzionamendurako barne
arautegia**

2018ko abendua

**BERRIKUNTZAREN, GIZARTE KONPROMISOAREN ETA KULTURGINTZAREN ARLOKO
ERREKTOREORDETTZA
VICERRECTORADO DE INNOVACIÓN, COMPROMISO SOCIAL Y ACCIÓN CULTURAL**

Hitzaurrea

DOCENTIAZ programak, oinarria duenak DOCENTIA programan (Irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazioari laguntzeko programa), aurreikusten du Irakaslana Ebaluatzeke Unibertsitateko Batzordea eratuko dela (aurrerantzean IEUB), DOCENTIAZ programaren deialdira ebaluatzeke aurkeztuko diren espediente bakoitzari buruzko azken ebaluazio iritzia emateko ardura duen organoa.

LEHENENGO KAPITULUA

IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATEKO BATZORDEAREN OSAERA

1. artikulua.- Osaera

Batzordeak beti izango ditu kide hauek:

- a) Irakaslanaren ebaluazioaren arloan eskumena duen errektoreordea, edo hark bere ordezkari izendatuko duen pertsona (bera izango da burua).
- b) Hamar irakasle, irakaskuntzan esperientzia aitortua eta handia dutenak (hamar urte baino gehiago), jakintza arloen ordezkari gisa.
- c) Bi ikasle, ikasketak UPV/EHUan egin dituztenak.
- d) Kanpoko bi ebaluatzaile, ospe handikoak.
- e) Irakaslana Ebaluatzeke Zerbitzuko zuzendaria edo, bestela, zerbitzuko teknikari bat.

Batzordeak berezko kide hauek ditu: Irakaslanaren ebaluazioaren arloan eskumena duen errektoreordea, edo hark bere ordezkari izendatuko duen pertsona, batzordeko burua izango dena; eta Irakaslana Ebaluatzeke Zerbitzuko zuzendaria, batzordeko idazkaria izango dena.

2. artikulua.- Batzordeko kide izateko izendapena eta kide izateari uztea

IEUBko kideak Gobernu Kontseiluak berretsi beharko ditu, irakaslana ebaluatzeke arloan eskumena daukan errektoreordearen proposamenari jarraituz. Errektoreak izendatuko ditu lau urterako, ikasleen kasuan izan ezik. Ikasleak urtero izendatuko dira.

IEUBko kide izateko izendapenari ezingo zaio uko egin, ez bada izendapena egiteko baldintzak betetzeari utzi zaiolako edo batzordeko kide gisa aritzea eragozten duen ezinbesteko arrazoiren bat gertatu delako ezustean. Halakoetan, ebaluazioaren arloan eskumena duen errektoreordeak aztertuko du adierazitako arrazoiak eta erabakia hartuko du, izendapenari uko egiteko idatzia jaso eta bost egun balioduneko epearen barruan.

Bestalde, batzordeko kide izateari utziko zaio elkarren segidako hiru bileratarako justifikatu gabe huts eginez gero, edo txandakako bost bileratarako.

3. artikulua.- IEUBk beti izango dituen kideak aukeratzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legerian aipatutako irizpideak beteko dira, ahal den neurrian. Era berean, ahalegina egingo da aukeratutako pertsonen egiaztatuta izan dezaten UPV/EHUko bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna.

3.1.- UPV/EHUko irakasleak

3.1.1.- Irakasleak aukeratzeko baldintzak

- a) Hamar urte edo gehiagoko lotura akademikoa izatea unibertsitatearekin.
- b) DOCENTIAZ programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- c) Arduraldi osoan aritzea.
- d) Irakaskuntza euskaraz emateko gaitasuna aitortuta izatea, hizkuntza horretan ematen den irakaskuntza ebaluatu behar denean.
- e) Irakasle emerituak eta bisitariak ez dira hartuko kontuan.

3.2.- Kanpoko irakasleak

3.2.1- Kanpoko irakasleak aukeratzeko baldintzak

- a) Lotura akademikoa izatea unibertsitate publikoekin.
- b) Erakundeen programetan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- c) Arduraldi osoan aritzea.
- d) Irakasle emerituak eta bisitariak ez dira hartuko kontuan.

3.3.- Ikasleak

3.3.1.- Ikasleak aukeratzeko baldintzak

- a) Graduondoko ikasketak egiten aritzea, UPV/EHUUn lizentziatu edo graduatu ondoren.

3.3.2.- Ikasleak aukeratzeko irizpideak

- a) DOCENTIAZ programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- b) Ibilbide akademikoa.

4. artikulua.- Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeko kide kopurua handitzea

Irakaslanaren ebaluazioaren arloan eskumena duen errektoreordeak IEUBko kide kopurua handitzea proposatu ahal izango dio Gobernu Kontseiluari, onar dezan. Kide kopurua aldi baterako gehituko da, betiere kontuan hartuta DOCENTIAZen deialdi bakoitzean parte hartuko duten irakasleen kopurua, irakasle horien jakintza arloa, eta eskaera egiteko erabilitako hizkuntza. Batzordeko kide horiek errektoreak izendatuko ditu, eta berak kenduko ditu kargutik.

4.1.- Irakasleak aukeratzea batzordeko kide kopurua handitzeko

4.1.1.- UPV/EHUko irakasleak aukeratzeko baldintzak, batzordeko kide kopurua handitzeko

- a) Docentiaz Programan aldez aurretiko ebaluazioa, gutxienez, Oso ona izandakoa.
- b) Espedienteak ebaluatzeko prestakuntza ikastaroa eginda izatea.
- c) Arduraldi osoan aritzea.
- d) Irakaskuntza euskaraz emateko gaitasuna aitortua izatea, hizkuntza horretan ematen den irakaskuntza ebaluatu behar denean.
- e) Irakasle emerituak eta bisitariak ez dira hartuko kontuan.

4.1.2.- UPV/EHUko irakasleak aukeratzeko irizpideak, batzordeko kide kopurua handitzeko

- a) DOCENTIAZ programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- b) Curriculum vitae laburra.

4.2.- Kanpoko irakasleak aukeratzea

4.2.1- Kanpoko irakasleak aukeratzeko baldintzak

- a) Lotura akademikoa izatea unibertsitate publikoekin.
- b) Erakundeen programetan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- c) Arduraldi osoan aritzea.
- d) Irakasle emerituak eta bisitariak ez dira hartuko kontuan.

4.3.- Ikasleak aukeratzea batzordeko kide kopurua handitzeko

4.3.1.- Ikasleak aukeratzeko baldintzak, batzordeko kide kopurua handitzeko

- a) Espedienteak ebaluatzeko prestakuntza ikastaroa eginda izatea.
- b) Graduondoko ikasketak egiten aritzea, UPV/EHUUn lizentziatu edo graduatu ondoren.

4.3.2.- Ikasleak aukeratzeko irizpideak, batzordeko kide kopurua handitzeko

- a) DOCENTIAZ programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- b) Ibilbide akademikoa.

4.4.- Batzordeko aldi baterako kideak kargutik kentzea

Deialdia behin amaituta, eta ebaluazioaren emaitzak behin betikoak eta irmoak direnean, kargutik kenduko dira aldi baterako izendatutako ebaluatzaileak.

BIGARREN KAPITULUA

IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATEKO BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

5. artikulua.- Batzordearen eginkizunak

Irakaslan Ebaluatze Unibertsitateko Batzordekoak eginkizun hauek izango ditu DOCENTIAZ programari dagokionez:

1. DOCENTIAZ programan parte hartzen duten irakasleen espedienteak aztertu eta baloratzea, oinarri hartuta ebaluazio protokoloan zehaztutako irizpideak.
2. Behin behineko ebaluazioari egindako alegazioak aztertzea, eta irakasleak emandako datuak egiaztatze aukera izatea.
3. Gorako errekursoak ebazten dituen organoak eskatutako txostenak egitea.
4. Irakaslana Ebaluatze Unibertsitateko Batzordeko aldi baterako ebaluatzaile berrien tutoreak izatea, nor bere jakintza arloan.
5. Irakaslana Ebaluatze Unibertsitateko Batzordeko aldi baterako ebaluatzaile berriekin batera ebaluatzea lehenengo espedienteak.
6. DOCENTIAZ programaren etengabeko hobekuntzan lan egitea.
7. Foroa dinamizatu eta sor daitezkeen zalantza eta ezusteko guztiak argitzea, ebaluazioan laguntzeko erabiltzen den plataforma birtualaren bidez
8. DOCENTIAZ programako ebaluatzaileak prestatzeko ikastaroak ematea.

6. artikulua.- Aldi baterako kideen eginkizunak

IEUBko aldi baterako kideen eginkizunak izango dira Irakaslana Ebaluatze Unibertsitateko Batzordearen eginkizunei buruzko artikuluko 1., 2., 3., 4. eta 5.¹ ataletan aipatzen direnak.

Eginkizun horiek betetzeko beharrezkoak izango diren baliabide materialak izango ditu batzordeak, eta DOCENTIAZ programaren kudeaketarako beren-beregi sortutako plataforma eta aplikazio informatikoak erabiliko ditu.

7. artikulua.- Batzordeko kideen abstentzioa eta errekusazioa, espedienteak aztertu eta baloratzeko eginkizunari dagokionez

DOCENTIAZ programan parte hartuko duten irakasleen espedienteak aztertu eta baloratzeko eginkizunari dagokionez, eskatzaileek errekusatu egin ahal izango dituzte IEUBko kideak, edo kide horiek prozeduran parte hartzetik abstenituko dira, urriaren 1eko 40/2015 Legean aipatutako arrazoiren bat egonez gero abstentziorako edo errekusaziorako (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren legea, 23. eta 24. artikulua).

¹ 4. eta 5. eginkizunak programan ebaluatzaile gisa alde aurretiko esperientzia duten aldi baterako kideek, soilik, beteko dituzte.

IUEBko kideak errekusatzeko epea hamar egunekoa izango da, Irakaslana Ebaluatzeako Zerbitzuaren webgunean argitaratzen denetik hasita.

Abstenitzeko, errekusatzeko edo IUEBko kideetako baten jarduna eragozteko arrazoiren bat badago, behar diren neurriak hartuko dira ebaluazio prozesua justizia, gardentasun eta ekitate printzipioei jarraituta eramateko aurrera, betiere eskatzaileen berdintasuna bermaturik eta haien garapen profesionala eragozten duten oztopoak kendurik.

HIRUGARREN KAPITULUA

IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATEKO BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA

8. artikulua.- Jarduteko printzipioak

Irakaslan Ebaluatzeako Unibertsitateko Batzordeak autonomiaz, inpartzialtasunez, moderazioz, objektibotasunez eta zintzotasunez jardungo du, bermatuta bai konfidentzialtasuna bai irizpideen bat etortzea eta berdintasuna.

9. artikulua.- Funtzionamendurako araubidea

Batzordea eratzeko eta organo horrek bilerak deitu eta bilerak egiteko eta erabakiak hartu eta aktak bidaltzeko, aurrez aurre egonda nahiz urrutitik jardun ahalko da.

Bilerak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

Batzordeko buruak batzordeko kide ez diren pertsonak gonbidatu ahal izango ditu bileretara. Pertsona horiek hitz egiteko eskubidea izango ditu, baina ez botoa ematekoa. Pertsona horiek ez dira hartuko kontuan bilera egiteko beharrezkoa den quorumerako.

Urrutitik egindako bileren kasuan, bilerara deitutako kideak toki desberdinetan egon ahalko dira, betiere bermatzen bada baliabide elektronikoak eskuragarri egongo direla bilerak irauten duen bitartean. Era berean, baliabide horien bidez bermatu beharko da bilerara deitutako pertsonen identitatea, beren adierazpenen edukia eta adierazpenok egingo diren unea, bai eta pertsonen arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa denbora errealean ere. Baliabide elektroniko baliadunak izango dira posta elektronikoa, audiokonferentziak, bideokonferentziak, baliabide telefonikoak eta ikus-entzunezkoak.

Batzordea behar bezala eratu eta bilerak egiteko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartzeko, batzordeko buruak eta idazkariak egon behar dute --edo hala dagokionean ordezkoak--, bai eta batzordeko kideen erdiak gutxienez, aurrez aurre edo urrutitik.

Deialdiak baliabide elektronikoen bidez bidaliko zaizkie batzordeko kideei, eta mezu horietan aztergaien zerrenda ere bidaliko da, eztabaidatzeko beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, ahal denean. Gainera, bilera zein baldintzatan egingo den jakinaraziko da, baita konexio sistema zein izango den ere eta, halakorik balego, bileran izateko eta parte hartzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak zein tokitan dauden jakinaraziko da.

Ezin da eztabaidatu edo erabaki aztergaien zerrendan jarri ez den gairik; eztabaidatu eta erabakitzeke, batzordeko kide guztiek egon behar dute bilduta, eta gehiengoak erabaki aztergaia presakoa dela.

Erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira. Bilera urrutitik egiten bada, erabakiak kide anitzeko organoaren egoitza dagoen lekuan hartu direla ulertuko da, eta, halakorik ez badago, organoko burua dagoen tokian.

Bilera guztietako akta egingo du batzordeko idazkariak, hala ohiko bileretakoa nola ezohiko bileretakoa. Aktan, nahitaez, honako hauek jaso behar dira: bildutakoak, aztergaien zerrenda, bilera non eta noiz izan den, eztabaidetako puntu nagusiak eta erabakien edukiak.

Bilera bakoitzeko akta bileran bertan onartu ahalko da edo hurrengo bileran. Batzordeko idazkariak buruaren oniritziarekin egingo du akta, eta bide elektronikoen bidez bidaliko die batzordeko kideei. Kide horiek bide horien bidez adierazi ahalko dute testuarekiko adostasuna edo eragozpenak, akta onartua izan dadin. Baiezkoa emanaz gero, bileran bertan joko da onartutzat. Bilerako dokumentuak euskarri elektronikoa erabili badira, gorde egin beharko dira fitxategi elektronikoen osotasuna eta benetakotasuna bermatzeko eran, baita IEUBko kideek horiek eskuratu ahal izateko eran ere.

9.1.- Ohiko bilerak

Bileraren eguna baino aste bat lehenago egingo da deia, betiere horretarako dauden baliabideek aukera ematen badute. Deialdia, aztergaien zerrenda eta bilerako dokumentuak baliabide elektronikoen bidez bidaliko dira, eta jatorrizko dokumentuak Irakaslanaren Ebaluatzeko Zerbitzuko idazkaritzan geratuko dira, batzordeko kideen eskura.

Ohiko bilerak sei hilabeterik behin egingo dira gutxienez.

9.2.- Ezohiko bilerak

Bileraren eguna baino 24 ordu lehenago egingo da deia.

IEUBk egingo ditu ezohiko bilerak unibertsitateko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazioaren arloan eskumena daukan errektoreordearen eskariz edo batzordea osatzen duten kideen bi herenen eskariz, betiere aztergaia presakotzat hartzen bada bada eta ohiko bilera egin baino lehenago aztertu beharrekoa.

LAUGARREN KAPITULUA

IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATEKO BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDURAKO BARNE ARAUTEGIA ALDATZEA

10. artikulua.- Arautegia aldatzeko prozedura

1. Arautegia aldatzeko ekimena batzordeko buruari dagokio, edo batzordeko kideen heren bati.
2. Arautegia aldatzeko proposatzen den testua batzordeko idazkariari aurkeztu beharko zaio, aldaketaren arrazoia azaltzen duen memoriarekin batera, eta idazkariak helaraziko die batzordeko kide guztiei.

Arautegia aldatzeko proposamena batzordeak eztabaidatuko du, horretarako egingo den ezohiko bileran. Proposatutako aldaketa onartu ahal izateko, osorik zein partzialki, batzordeko kideen gehiengo soilak aldeko botoa eman beharko du.